

**2. Zeregina. DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.**  
**Tarea 2. Plan de mejora de las competencias lectoras en la ESO.**

Testua. TEXTO.

**Erromatarrak Tiberretik Bidasoara**

**Urko Apaolaza**

**Erromatar aztarnen azken berriak gure kostaldean. Aurkikuntza baten historia**

«Baina nork dio erromatarrik ez zela egon hemen? Caro Barojak esan zuen: *saltus* eta *ager*. Baina hori erromatar idatzietan ez da ageri eta aztarna arkeologikoez justu kontrakoa diote!», ahotsa punttu bat igo eta baieztatzen du, seguru, eskuan pintzela eta aitzur txikia balitu bezala. Teoria hutsalak dira horiek beretzat eta aipatu orduko sutu zaigu: «Zergatik izan behar du saltus basoa? Zergatik ez pasabidea? Esanahi hori ere badu. *Saltus* eta *ager*... hori bai dela topiko bat». Plinio zaharrak *saltus vasconum* deitu zion Oiassori, baina Mertxe Urteagaren ustez horrek ez du hutsa zegoenik esan nahi: «Caro Barojak asmatu zuen ideia hori eta gero denok joan gara atzetik, egia ote den pentsatu gabe» amaitzen du.

Arrazoi du Mertxe Urteagak eta berak bezala, beste ikerlari askok jardun dute lanean topiko horiek behingoaz baztertzeke. Euskaldun mendikoak, inoiz erromatartu eta zibilizatu gabeak... teoria hori gozoki gozoegia da metalen aleazioaren mundu globalari aurre egiteko, egurrezko ezkutu gogorregia, egia izateko. Erromatarrak gure unibertso «saltusiarrean» ere izan ziren, Ravenako mapa anonimoak erakutsi zien iristeko bidea eta bertan utzi zituzten beren urratsak eta zapaten zolak, Oiasso da horren lekuko.

**Aztarnak atera eta topikoak lurperatzen**

Mertxe Urteagak urte mordoan darama erromatar garaiko historia eta arkeologia aztertzen eta horietatik zati handi bat Irungo Oiasso aztarnategian eman du. Hain zuzen, uztailetik irekita dagoen Oiasso Museoko zuzendaria da eta berak ezagutzen du, inork baino hobeto, erromatar hiria historiara ekartzeko arkeologoez egindako lana.

Irungo Santiago kalean kolektore bat sartzeko zangak egiten hasi ziren 1992an, eta orduan ohartu ziren arkeologoak bertan aztarna erromatarrak azaldu zitezkeela. Hiru metroko zangak ireki zituztenean, lokatz artean, Euskal Herriko kostaldean inoiz aurkitu den erromatar garaiko material eta zeramika puska multzo handiena azaldu zen. Baina hori bakarrik ez, lokatza kendu eta kendu, erromatarrek eraikitako egurrezko portu batekin egin zuten topo arkeologoez, kontserbazio egoera paregabean. Hasieran, indusketekin ari zirenean, herritarrek ez zuten ulertzen: «Baina zuek jota zaudete, oraindik ez duzue ikasi hemen ez zela erromatarrik egon?» esaten zieten, aztarnak ateratzeko lanean ari zirela. «Galdera hori gaur egun egiten dute batzuek oraindik, bada imajinatu duela 16 urte» dio Urteagak, eta hasperen txiki batek ahotik ihes egiten dio jarraian: «Momentu zailak izan ziren, baina pentsa, goizean zuloan sartu eta katilu bete zeramika ateratzen genuen, arratsaldean sartu eta berdin... horrek indarra ematen zigun», esaten du Oiassoko Zuzendariak, begiak iraganera itzultzen dituen bitartean. Izan ere, marka guztiak hausteko moduko aztarnak berreskuratu zituzten sasoi hartan Irunen. Datu bat: ordura arte Ama

Xantalengo ermitako hil kutxetan azaldutako erromatar garaiko 40 zeramika zati besterik ez zituzten, eta Oiassoko aztarnategitik 14.000 pieza atera dituzte jadanik. «Deskubrimendu horrek nazioarteko sareetan sartzeko aukera eman zigun batez ere», azaltzen du Urteagak baikor.

### **Zilarraren bila, ez latina irakastera**

«Erromatarrak oso bizkorak izan ziren eta herriei beren hizkuntzan hitz egiten utzi zieten». Esaldi horixe esan zuen Juan Santos Yanguas irakasleak EHUKo Udako Ikastaroen barruan egin ziren Erromanizazioari buruzko jardunaldietan. Izan ere, «erromanizazio» hitza esatea ez omen da zuzena, azken teoriari arabera erromatarrak ez ziren etorri beren eredu «zibilizatua» inori inposatzera, baizik eta interes ekonomiko soilagatik.

Baina zer topatu zuten erromatarrek gure kostaldean? Eta zer pentsatu zuten euskaldunek oilar itxurako erromatar haiek ikustean? Zaila da jakitea. Badirudi Euskal Herrian bi kultura zeudela garai haietan: batetik harrespil edo mairubaratzen eremua zegoen, Pirinioen inguruan -tribu baskoiaren lurraldearekin bat egiten du honek-, bestetik azken aldian Gipuzkoan aurkitu diren Burdin Aroko herri harresituak dauzkagu. Xabier Peñalver arkeologoak bi mundu horien inguruko hipotesiak plazaratu ditu eta elkarren artean osagarriak izan zitezkeela dio berak, oraindik datu askorik ez dagoen arren.

Dena dela ere, erromatarrak segituan hasi ziren tribu euskaldunekin harremanak izaten eta bertako askok Erromako ohitura hiritarra barneratu zuten. Biek zuten interesa azken finean, eta horren arabera jokatu zuten batzuek eta besteek. Adibidez, K.a. 10. urte inguruan Augustoren menpekoak Bidasoara iritsi zirenean, bertako meatzeak jo zituzten begiz, eta ez zuten denborarik galdu. Horrela, Aiako Harrien inguruan galeria ugari sortu eta zilarra ustiatu zuten, euskaldunen laguntzarekin, Arditurriko galeria ezagunak kasu.

GAIA/ASIGNATURA	LATINA
MAILA/CURSO	4. DBH
IKASTETXEA/CENTRO	BHI LEKAROTZ
DEPARTAMENTUA/DEPARTAMENTO	LATINA
IRAKASLEA/PROFESOR / A	NEREA MITXELTORENA
<b>JATORRIA/FUENTE</b>	
EGILEA/AUTOR	URKO APAOLAZA
IZENBURUA/TÍTULO	ERROMATARRAK TIBERRETIK BIDASOARA
ARGITALETXEA/EDITORIAL	ARGIA
URTEA/AÑO	2006-10-08 -- 2057.zenb
ORRIALDEA(K)/PÁGINA	
ISBN	

<b>TESTU-MOTA/TIPOLOGÍA</b>		
OINARRIA/SOPORTE	Texto impreso	
FORMATOA/FORMATO	JARRAIA	
MOTA/TIPO	ARGUDIO TESTUA	
ERABILERA/USO	HEDABIDEA	
<b>ESTRATEGIAK/ESTRATEGIAS DE LECTURA</b>		
IRAKURRI BAINO LEHEN/ANTES DE LA LECTURA	<p>a) Informazio zehatza lortu. Testua irakurriko da, zein motatakoa izan daitekeen zehaztu beharko dute. Kasu honetan, argudio testua izaki, mota honetako testuen egituraketa birpasatuko da (hau da, tesia, argudioak, ondorioa).</p> <p>b) Testua ikasgaian emandako edukiekin lotzea. Aurreko ebaluaketan latina eta euskara atalarekin lotzea, eta erromatarrek Euskal Herrian izan zuten egonaldia eraginaz jabetzea.</p>	
IRAKURRI BITARTEAN/DURANTE LA LECTURA	<p>c) Paragrafo bakoitzaren laburbiltze partziala. Argudio testua izanik, zailtasunak izan ditzakete testu honen egituraz jabetzeko, horretarako paragrafok irakurriko da laburbiltze partzialak eginez eta argudio testuaren barnean zein atali egiten dion erreferentzia aztertuko da.</p> <p>d) Testuan agertzen diren izenei erreferentzia egitea. Testuan hainbat ikerlari izenak (Caro Baroja, Murtze Urteaga, Xabier Peñalver...) eta Oiasoko museoari erreferentzia egiten zaio. Testuan pisu berezia dute izen hauek. Argudio testu honi izen horiek ekartzea zer erantzen dioten aztertuko da.</p>	
IRAKURRI ONDOREN/DESPUÉS DE LA LECTURA	<p>e) Testutik eta aurreko jardueretatik abiatu inferentziak egitea. Autoreak defendatzen duen tesia eta ematen dituen arrazoiak aztertzea, aurretik gaiaz dakitena kontuan hartuta, beraien iritzi propioa osatzea eta ondorio berriak ateratzea, testua osatzeko.</p>	
<b>JARDUERAK/PROCESOS LECTORES</b>		
Informazioa bilatzea edo eskuratzea RECUPERAR - OBTENER INFORMACIÓN	1.	Testuan bi hitz etzanak agertzen dira. Bila itzazu. Zein esanahi dute hitz horiek testuan?
	Erantzuna/Resposta	<i>Alde batetik saltus agertzen da. Alde batetik, basoa dela agertzen da, baina honekin batera pasabidea. Bertzetik Pliniok saltus vasconumek Oiasori erreferentzia egiten ziola dio. Bigarren hitza etzana agertzen dena, ager da, baina ez du argitzen hitz honen esanahia</i>
	2.	Zenbat kultura zeuden Euskal Herrian erromatarrek bertara etorri zirenean?

	Erantzuna Respuesta	<i>Badirudi bi kultura zeudela Euskal Herrian garai hartan Xabier Peñalver arkeologoaren arabera. Batetik harrespil edo mairubaratzen eremua zegoen, Pirinioen inguruan –tribu baskoiaren lurraldearekin bat egiten du honek-, bestetik azken aldian Gipuzkoan aurkitu diren Burdin Aroko herri harresituak dauzkagu.</i>
Ulermen orokorra COMPRENSIÓN GLOBAL	1.	Zein da testuko ideia nagusia?
	Erantzuna Respuesta	<i>“Erromatarrak gure unibertso “saltusiarrean” ere izan ziren, Ravenako mapa anonimoak erakutsi zien iristeko bidea eta bertan utzi zituzten beren urratsak eta zapaten zolak, Oiasso da horren lekuko”</i>
	2.	Hori bada ideia nagusia, zeintzuk dira ideia hori sustengatzen dituzten argudioak?
	Erantzuna Respuesta	<i>Alde batetik, Irungo Santiago kalean aurkituriko aztarna erromatarrak, eta bestetik, erromatarrek eraikitako egurrezko portu bat.</i>
Interpretazioa INTERPRETACIÓN INFERENCIAS	1.	Esan bakoitzak argudiatu zuena: Caro Baroja Mertxe Urteaga
	Erantzuna Respuesta	<i>Caro Baroja: Saltus-a basoarekin lotzen du eta ez du ematen bertan erromatarrak egon zirenik. Caro Barojaren ideien aurka agertzen da Mertxe Urteaga: berau da Oiassoko aztarnategian lan egin zuenetako bat, eta honek erromatarrak Oiasson egon zirela defendatzen du. Juan Santos Yanguas: Nahiz eta erromatarrak Oiasson egon beraien asmoa ez zen hizkuntza inposatzea. Bi hauek testura ekartzen ditu, beraiek lanak edo ikerketak defendatu nahi duen ideia arrazoitzeko eta indartzeko balio dioelako.</i>
	2.	Urko Apaolazak testua Mertxe Urteagaren hitzekin hasten du. Hasiera horretan haserre agertzen zaigu Urteaga. Zergatik?
	Erantzuna Respuesta	<i>Badirudi, Caro Barojak bere teoria eraiki zuenean ez zuela kontuak hartu “Saltus” hitzak izan zezakeen esanahi guztiak, eta Caro Barojak ematen dioen esanahia kontuak hartuta erromatarrak kostaldera ez zirela etorri baieztatzen duela. Honetaz gain, ondoko</i>

		<i>ikerlariak Barojaren hitzak aintzat hartu eta hipotesi hori ongi eraikia zegoen edo funtsik zuen aztertu gabe egiazat hartu izan dela, sekulan zalantzan jarri gabe.</i>
Edukiaren gaineko hausnarketa VALORACIÓN - REFLEXIÓN CONTENIDO	1.	Zer erran nahi du “oilar itxurako erromatar haiek “?
	Erantzuna Respuesta	<i>Garai hartan erromatarrek kaskoak zeramatzen, eta kaskoa zaldi ilez eginiko gandorra modukoa zeukaten. Kasko horiek oilarren gandorrarekin konparatzen ditu, ez du inolaz ere erromatarrek koldarra direla adierazi nahi.</i>
	2.	Zer garrantzia du Euskal Herria erromanizatu izatea ala ez?
	Erantzuna Respuesta	<i>Alde batetik Euskal Herria ez bazuten erromanizatu, Historian herri mendera ezina bezala agertuko luke. Bestalde basatia, zibilizaziotik kanpo denbora luze gelditu izana.</i>
Formaren gaineko hausnarketa VALORACIÓN - REFLEXIÓN FORMA	1.	Nola islatzen dira testuko egituraketan argudiozko testuaren ezaugarriak?
	Erantzuna Respuesta	<i>Testuan hiru zati bereizten dira. Lehenengoa “Erromatar aztarnen azken berriak gure kostaldean. Aurkikuntza baten historia”. Bertan, sarrera moduko bat egiten da eta autoreak defendatuko duen ideia (tesia) azaltzen da. Bigarrena, “aztarnak atera eta topikoak lurperatzen”. Zati honetan bere argudioa defenditzeko hainbat datu ematen ditu, bere tesia defendatzen du, horretarako adituen ikerketei erreferentzia egiten die. Azkenik, “Zilarraren bila, ez latina irakastera”. Zati hau hizkuntzarekin lotzen du, eta erromanizazioa ez zela hizkuntza aldetik izan, ekonomikoa baizik azaltzen du.</i>
	2.	Testuan hainbat zati komatxoaren artean ageri dira, zer dela eta?
	Erantzuna Respuesta	<i>Komatxoaren artean azaltzen dena zenbait pertsonen hitzak hitzez hitz hartzen dituelako da.</i>
<b>PRAKTIKAN JARRI/PUESTA EN PRÁCTICA – OHARRAK /OBSERVACIONES</b>		